

# “GAIRON-GAIRONA”

(“Oro del Eska”tik artruk eta uskarara utzulturik)

Estornés Lasa, José

## ERRONKARIKO IRIETAN EGITAN ZENA GAI ONAREN EGUNAZ

Elurpean ortzitruk, aziek lo egitan zien. Abentuarena da.

Elur eta otzen tartean, moitarun bageko bigotzen tartean sortu zen lur gainean Jainkoaren Azi Ona, sortu Belen'en Argi Berria.

Gaion; Uskal Auñamendi'an Gaiona. “Oxanea” zuri-zuri eta andi-andi dago. Beste mendiek, xorrotxago izanik, beren punttaz urratu dei elur estalkia.

Etsegainen zurajeak, elurrez jantzirik, familiak altxatan dutu. Toskatxamidren ke.maltak eta urzo-talde baten egakada, iñon ere baratu bage urzotegiara berriz xitan denean, bizi-señale bakotxak dra Auñamendi'ko iri ñottoan.

Ogeita laugarren eguneko goxa da. Belagua'ko ateñotik aizeak bultzatan du eta etsegainetatik elur-auts egoxtan du.

Erronkari'ko Eskutu glorioso paretan dun etsezar baten aurkian, aursaldo batek kantatan du, eskuetan zakuto zuri-zuri ekunik.


Ai, Maria!  
Gairon-gairona:  
sortu da Jein Ona.  
Natara bitate  
Urteren bitarte  
Argizaya,  
mirall andia.  
Zutara mendatan da  
mundu guzua.  
Sandoro'petik dakorte.  
Paradusu'ko zabala,  
kanko unrra sagarra;  
sagar kartarik xan lezana  
Jeinaren seme eta alaba.

Jesus, Santa Maria  
dakigula balia  
ilean eta bizian,  
arimaren orduan.

Ollarrak txuriak mundutik,  
Ainguru Ona zeuritik.  
Ogi Ona Ostiarako,  
Ardau Ona Kalizarako.  
Ketan bietan konbertitruk  
Jesukristo goretako.  
Ekusirik birtute  
gore Jeinaren Kandelariak  
graziaz beterik dakorte

Azken estrofa kantatuz geroz,  
bozkariozko iragoka asten dra. Etseko  
anderiak gaztain eta etzagur anitx eragu  
eta errepartitan dutu aurrer.


Askaziagoak sukaltra igan-araztan dutu goxorik emoitako; baya, leinik, bapanari pattata bana eskeintan dabe, eta ekusgarri dra aurren beitarte ullunak.



Etseko anderiarri erakustan dabe biltu deina eta puskat berotan dra. Emazteak, txungaz, bai serioz bai barrez, goxoen parte eskatan zabe.

Aurrak kantik erkitan dra lasterka, karrika gora edo karrika bera xoan dren beste aurrer eltako.

Korrikaldia akabatan, sukaltien sukaldarrean arrapaketa zenbatan dei: etzagur, gaztain, sagar zimirtruk, ogiroska, katamora eta beste goxo, guzua tasta onenetako.



1981. ESTORNÉS LASA, José: *Gairon-Gairona*, suplemento de fomento del vascuence de Príncipe de Viana, 147gna., 11 orr.